

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Bermeoko Udala****Bermeoko Emergentsia Mahaiaren funtzionamendu Araudia. 815. Dekretua****XEDEA**

COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Bermeoko Emergentsia Mahaiaren funtzionamendu Araudia onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu dauen egoeraren aurrean, Lehendakariak, martxoaren 13ko 6/2020 Dekretua emon eban, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak beregatzeko.

Bigarrena: COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu zan.

Hirugarrena: 2020ko martxoaren 24an, Idazkaritza Saileko AOTk erabagi proposamena emon dau.

Argudioak

Lehenengoa: COVID-19ak sortutako krisia kudeatzeko, beharrezkoa ikusi da Bermeoko Emergentsia Mahaia eratzea eta, horretarako, bere funtzionamendu Araudia prestatu da. Eta Araudia onartzea ezinbesteko eta premiazkoa da.

Bigarrena: Erabagia hartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Entitateen Erregimenaren oinarriak onartzen dauzan 7/1985 Legearen 21.1.m) artikulua arabera, alkateari jagoko, beti be Osoko Bilkureari erabagi horren barri emonda egiten dan lehenengoko batzarrean.

ERABAGIA

Hori guztia dala eta, honakoa erabagi dot:

Lehenengoa: COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Bermeoko Emergentsia Mahaiaren funtzionamendu Araudia onartzea.

Bigarrena: Araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua emotea Idazkaritza Sailari.

Hirugarrena: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkurean Dekretuaren barri emotea.

EMERGENTZIA MAHAIAREN FUNTZIONAMENDU ARAUDIA**1. Xedea**

Araudi honen helburua Emergentsia mahaiaren funtzionamendua arautzea da, 2018ko azaroaren 28ko Osoko Bilkurean onartutako Bermeoko Emergentsia Planarekin bat.

2. Eragin eremua

Emergentsia mahaiaren eragin eremua Bermeoko Udalerria izango da, Bermeoko Emergentsia Planaren 1.3 artikulua arabera deskribapenarekin.

3. Emergentsia mahaiaren funtzioa

Emergentsia mahaiaren funtzio nagusiak hauek izango dira: Bermeoko Udalerrian sortu daitezkeen alarma edo emergentsia egoeraren ondorioz informazio eguneratua izatea, hartu beharreko neurriak zehaztea eta hartutako neurrien jarraipena egitea.



4. Emergentsia mahaiaren eraketa eta ordezkaritza

4.1. Bermeoko Emergentsia Planean xedatutakoarekin bat, hauek izango dira Emergentsia mahaiaren kideak:

- Presidentea: Bermeoko alkatea izango da.
- Mahaikideak hauek izango dira:
 - Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko Presidente eragilea.
 - Herri babeseko arduraduna.
 - Bermeoko Udaleko Zerbitzu Saileko teknikaria.
 - Bermeoko Osasun Bulegoko zuzendaria.
 - Ertzaintzak izendatutako ordezkari bat.
 - Bermeoko Udaleko idazkari nagusia.
- Koordinatzailea: Bermeoko Udaleko udaltzain-burua izango da.

Beharrezkoa den kasuetan beste kide batzuk ere deitu ahal izango dira mahaiaren parte hartzeko.

4.2. Aipatutako kideek, ordezkoak izendatu ahal izango dituzte, batzarretan parte hartzeko aukera ez daukaten kasuetarako. Ordezko horiek lan arlo bereko edo parekoak izan beharko dira, eta euren ordezkotza batzarra baino lehenago jakinarazi beharko da eragina eduki ahal izateko.

5. Emergentsia mahaiko ordezkarien funtzioak

5.1. Lehendakariaren funtzioa izango da batzarrak deitu, batzarren ordena eta funtzionamendua bermatu eta hartutako erabakiak exekutatzeko beharrezko aginduak ematea.

5.2. Mahaikideen funtzioak hauek izango dira:

Beraien arlo eta ezagutzarekin bat emergentsia edo alarma egoerari aurre egiteko informazioa elkarbanatu, neurriak proposatu eta hartutako neurriak zabaltzea berain eragin edo mendeko arloetan.

5.3. Koordinatzailearen funtzioa izango da batzarrak, batzarretan hartutako erabakien eta eragindako arlo guztien koordinazioa. Horretarako, besteak beste, batzar deiak egingo ditu presidentzearen aginduz eta batzarretako akta altxatuko du.

6. Deialdiak eta batzarrak

6.1. Emergentsia mahaia, ohiko izaerarekin astean behin batzartuko da eta, izaera bereziarekin beharrezko dagoen guztietan.

6.2. Batzarren eguna azteazkenetan finkatzen da, 9:00etan.

6.3. Batzartzeko ohiko lekua Gizarte eta Kultura Etxeko 2.1 gela izango da, baina aurrez aurreko batzarrak bideokonferentzia edo telefonoz egindako batzar telematikoen-gatik ordezkatu ahal izango da egoerak horrela eskatzen badu. Era berean, posible da kideren batek batzarrean parte hartzea bideokonferentziaz edo telefonoz.

6.4. Batzarren deialdia 48 orduko aurrerapenarekin egingo dira gutxienez. Ez ohiko batzarren bat premiazkoa balitz, ahal den lehenastunarekin egingo da, beti ere gutxienezko 3 orduko tarte bermatuta, batzarkideen presentzia bermatu ahal izateko.

6.5. Deialdiak egiteko ohiko bideak emaila, telefonoa eta whatsapp izango dira, mahaiko kideek ez badute eragozpenik agertzen.

6.6. Gai zerrendako ohiko puntuak hauek izango dira:

- 1) Asteko berrien informazio eman.
- 2) Neurrien jarraipena egitea.
- 3) Neurri berrien beharrezko aztertzea.

Ohiko puntuez gain, beharrezkoak ikusten direnak gehitu ahal izango dira unean-unean.

**7. Batzarren funtzionamendua**

7.1. Emergentzia mahaiaren funtzionamendurako, ohiko batzarretan, beharrezkoa izango da presidentea, koordinatzailea eta kideen erdiak egotea, bai pertsonalki edo ordezkoen bidez.

7.2. Ez ohiko batzarren kasuan, nahikoa izango da presidentea, koordinatzailea eta kideen herena egotea, bai pertsonalki edo ordezkoen bidez.

7.3. Ez ohiko batzarra premiazkoa eta atzeraezina izango balitz, ez da gutxiengo kiderik beharko, beti ere presidentea eta koordinatzailea badaude.

7.4. Batzarretan hartutako erabakiak ez dira lotesleak izango, baina kontrako irizpea jarraitzen bada justifikatu egin beharko da.

8. Emergentzia mahaiaren desegitea

Behin alarma egoera altxatuta edo ondoren, alkateak horrela erabakitzen duelako, emergentzia mahaia desegingo da.

Bermeon, 2020ko martxoaren 24an.—Alkatea, Aritz Abaroa Cantuariense